

GUK, EMAKUME FEMINISTOK, GURE ESKUBIDEEN- GATIK BORROKATU ZUTEN GUZTIEN OINORDEKOAK, emakumeen ezabaketa sustatzen duen mugimendu internazionalaren aurka,

SALATZEN DUGU

Genero nortasun eta adierazpen kontzeptu ez zientifikoak, sexua hutsal bihurtzen duten kontzeptuak **GURE LEGEDIAN SARTU NAHI DITUZTELA.**

Emakumeek sufritzen dugun diskriminazio eta indarkeriaren **OINARRIA SEXUA DELA.**

SEXU KATEGORIA EZABATZEA eta norberak sumatutako genero batengatik ordezkatzeari misoginia jokoera dela.

SEXUA kategoria juridikotik **EZABATZERAKOAN** emakumeek jasaten dugun desparekotasun estrukturalaren aurka doazen politikak zentzu gabekoak bihurtzen direla.

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO LEGEA ETA BERDINTASUN-LEGEA baliogabetu egiten direla sexua diskriminazio eta indarkeriaren oinarria dela legediatik ezabatu ezker.

GENEROA- sexuari lotzen diren femenino eta maskulinoa- zapalkuntza sistema bat dela. Emakumeoi zein estereotipoei men egin eta zein eginkizun hartu behar ditugun agintzen digun tresna kultural eta soziala da generoa.

GENEROA NORBERAK SENTITUTAKO NORTASUN MODUAN DESKRIBATZEAK ahalbidetzen duela, inposatutako estereotipo eta rol sexualekin ados ez dauden pertsonak “gorputz okerrean” jaio direla baieztatzea. Pentsaera oker eta ez zientifikoa da hori.

FALAZIA HURAREN ARABERA, “gorputz okerrean” jaio izan ahal garela, umeak beharrezkoak ez diren tratamendu hormonal eta kirurgikoetara bultzatzen dituztela. Eta hori haurren tratatu txarra da.

HAURREN BURUETAN IDEIA SEXISTAK SARTZEN ari direla, pentsaera ez zientifikoetan oinarrituta daudenak, neska eta mutilen jokoak ezberdinak izan behar direla esanez, neska eta mutilen gustu ezberdinak dituztela. Joko edo gustu hauek estereotipo sexisten aurka baldin badoaz, pentsaera oker horien arabera, umearen burmuin “arrosa edo urdina” ez dator bat bere sexu biologikoarekin.

Kontzeptu oker horiek izkutatzen dituen **IDEOLOGIA MISOGINOIA SALATZEAGATIK,** aktibismo feministak ageriko jazarpena sufritzen ari dela. Horregatik, aldarrikatu nahi dugu, feminismoa postulatu queer-ekin nahastu ezin dugula, are gutxiago queer-agatik ordezkatu.

“GENERO IDENTITATEAREN” POLITIKEN DEFENDATZAILEEK herrialde guztietan lobbyen ohiko taktika berdinak erabiltzen dituztela. Taktika horien artean, emakumeen aurka hertsatzaileak diren inposizio normatiboak ager dira.

LOBBIEK, “genero identitatearen” politikak ezarri nahi dituztenek, eztabaida demokratiko publiko, politiko eta mediatikoa ostu nahi dutela, legearen atalei buruzkoa eta pairatuko diren ondorioei buruzkoa, emakumeontzako bereziki, baina herritar guztiontzako ere.

Hori guztia dela eta, **ADIERAZTEN DUGU**

Feminismoa banakako nahien edo **identitateen teoria ez dela**.

Ikuspuntu kritiko feministak ahalbidetzen digula, “genero identitatea” kategoria berri bat besterik ez dela baieztatzea, **emakumeen bazterketa publiko eta hutsaltasun juridikoa** gauzatu nahi duena.

Sexua ukatzea eta **generoa askatzaile moduan orokortzea patriarkatuaren erabateko arrakasta dela**, benetako egia bakarra baita, sufrimenduak, indarkeriak eta injustiziak generoa dutela, eta indarkeria eta injustizia horiek emakumeek pairatzen dituztela emakume jaio izanagatik.

Ez gara geldirik geratuko **emakumeen espezifikotasuna ukatzen duen kontu queer-aren aurrean**: Kontu misogino horren arabera ez dago genero-indarkeriarik, emakumeak ez gara feminismoaren sujetu politikoa, ez dago sexu biologikorik, ez gara emakumeak, “cisemakumeak” baizik, ez dago emakume haurdunik baizik eta “sabelean hazi egiten duten gorputzak”, ez gara talde sozial bat kolektibo bat baizik.

Kontu queer hori salatzen dugula; aldarrikatzen baitu, emakumeok, eta gizarteak orokorrean, **kategoria aldakor, iragazkor eta fluidoa** den “genero identitatea” onar dezagula, sinetsiz gainera, emakumeak kategoria horren barnean sentitu behar gara.

Salatzen dugu, “Transfobia” salaketaren mehatxuen menpean **ikusezin bihurtzen gaituen** hitzarmen sozial berria onartu behar dugula. Inposaketa hori patriarkala delari eusten diogu.

Ez dugu onartuko sentitutako generoak emakumeentzako beharrezkoak **diren berdintasun politiketan** sexu kategoria ordezkatzeko.

Sexu kategoria eremu juridikotik ezabatu ezkero, emakumearen babesaren legedi espezifikotik desagertuko litzateke; estatistikatik desagertzen bada, emakumeoi eragiten gaituzten datuak alde batera geratzen dira; sexuak garrantzia galtzen badu kirolean, joko zikinak eta iruzurrak ahalbidetuko dira; emakumeen leku seguruak (harrera etxeak, komunak, aldagelak, kartzelak, ...) ez dira sexuaren arabera babestuko, emakumeok lortutako segurtasuna arriskuan geratzen da.

Emakumeen Ezabapenaren Aurkako Aliantzatik “sexu” kategoria opresio ardatz moduan ukatuz emakumeak ezabatzen dituen saiakera oro ukatzen ditugu, **“genero” barne-bizipen moduan ulertzea ukatzen dugu, ez dugu onartuko “emakumeak” hitzaren esanahia hauts bihur dezaten**.

EZJAKINTASUNAK EZTA BELDURRAK EZIN DUTE EMAKUMEEN EZABAPENA SUSTATZEN DUTEN LEGEDIAK SALATZEKO GURE BETEBEHAR FEMINISTA ATZERATU.

EMAKUMEEN EZABAPENAREN AURKA, ASALDURA FEMINISTA. BATU ZAITEZ.

EMAKUMEEN EZABAPENAREN AURKAKO ALIANTZA plataforma feminista bat da, sexuan oinarritutako emakumeen eskubideak babesteko sortua, baita emakumea izatea sentimendu bat dela dioten legedi misoginoak ezagutarazteko ere.